



IKUSI MIKUSI PROFESIONALEN EGUNA 2025

"Denak berdin, denak ezberdin, eta zu?"

- 2025eko urriaren 10a (ostirala)
- Sarako Herriko etxeko gela (goiza), kiroldegiko ikusentzun gela (mahai-ingurua)
- Euskaraz, bat-bateko itzulpenarekin frantsesera (kaskoekin)
- Izen ematea (beharrezkoa):** Lucie LOHIER - lucie.lohier@eke.eus

Aurtengo azokak gai nagusi gisa hartu du ezberdintasuna, zentzu anitzetan hartzen ahal dena gaurko gizartean. Profesionalen egunean mahai-inguruaren bitartez landuko da kontua. Bestalde egunak aukera emanen die profesionaleri haur eta gazte literaturako berrietasunez jabetzeko, baita ere festibalaren baitan haureri eskainiak zaizkien ikuskizun, tailer eta animazioak, eta haien sortzaileak, ezagutzeko.

9:00 Harrera - Kafea - Sarako Herriko etxeko gela

9:30 Haur eta Gazteen baitan irakurtzeko ohitura sustatzeko lantegia

Lantegi praktikoa bat eskainiko dute Galtzagorri elkarteak bi adituk. Berriki argitaratu diren obreen arteko kalitatezko hautaketa bat aurkeztuko dute, haur eta nerabe publikoentzat, mota anitzekoa. Hauen barna irakurzaletasuna dinamizatzeko estrategiak proposatuko dituzte.

11:15 Azokaren itzuli librea

Haur eta gazte literaturan euskaraz publikatzen duten egitura dozena bat (Pamiela, Ikas, Denonartean, Txalaparta, Alberdania, Elkar...).

EGUERDIKO BI PROPOSAMEN, ZUK HAUTA!

- 1 12:30 Ikuskizun edo tailer batean parte hartu (45-50 min.)**
13 proposamen desberdin (ikusi ikuskizun eta tailerren deskribapen laburra web gunean).
Izen ematea derrigorrezkoa da - Bazkaltzeko: SPAR, okindegia, bakoitzak berea...
Egitarau osoa: ikusimikusi.eus

- 2 12:30 Bazkaria**
Herri barnean den Pleka ostatuan bazkaldu. Izen emate derrigorrezkoa.

14:00 Ikuskizun edo tailer batean parte hartu (45-50 min.)

13 proposamen desberdin (ikusi Ikuskizun eta tailerren deskribapen laburra web gunean).
Izen ematea derrigorrezkoa da. Egitarau osoa: ikusimikusi.eus

16:00 Mahai-ingurua: "(H)egoaren (h)egiak"

Norberari buruzko (h)egiak non atzeman ditzakete haur eta gazteek? Bertzeak bertze Haur eta Gazte literaturaren mapan. Hor ohar baitaitezke norbera eta bertzeen arteko mugez, elkar irudikoak edo ez. Elkarren arteko (ez)berdintasunen berri har ditzakete, Haur eta gazte literatura tresna zinez baliosa da eguneroko egoerak kudeatzeko eta ongi bizitzeko, irudimena bidaide izanez, plazerezko xendretan barna. Gure album preziazuek gidaturik ibiliko gara mapa horretan barna, idazle, ilustratzaile, literaturan aditu eta elkartekide batzuen laguntzari esker. Presio estetikoaren itzala handia baita. Animatzaile: Ainize Madariaga